

# Iran urduri arazteko, emaziozu xake-mate Qatar harroputzari



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Qatar txikia hesitu dute Saudi Arabia, Emirerri Arabiar Elkartuak eta Egipto artean, uberan jokaldira erakarri dituztelarik herrialde musulman gehiago Pakistandik Mauritaniara. Gatazkak badauka familiako liskarren usaina: anaia nagusiek, Donald Trumpek Iranen aurka egindako hitzaldi bortitzak beroturik, aukera ikusi dute familiako txikiena den Qatar arrastoan sartzeko, onean ez bada txarrean. Baina inplikazio geopolitiko handi bezain nahasiak ere bai.

Tomas Alcoverro (*La Vanguardia*) kazetari beteteranoak esan ohi du: “Ekialde Hurbilaz zerbait ulertu baldin baduzu, seinale gaizki azaldu dizutela”. Lerroon ametsa ez da Arabiako Golkoa uda hone-tan gerrara eraman lezakeen tentsioaren azalpen totala ematea. Aldiz, intersegarria dirudi ataritik Libanon afera nola ikusten duten ezagutzea. *L'Orient – Le Jour* da Beiruteko egunkari nagusietakoa, burgesia kristauaren ikuspegia azaltzen duena, Mendebaldeko eredu parlamentarioaren defendatzailea, kritikoa Hezbola, Siria eta Iranekiko, herrialdea suntsitu izan duen Israelekiko mesfidatia, kritikoa ere Saudi Arabiak zabaldu duen islam atzerakoiarekiko... Hona nola ikusten duen Qatarrekoa.

Ekainaren 5az gozotik Saudi Arabia (31,5 milioi biztanle), Barherin (1,37), Arabiar Emirerri Batuak (9,16) eta Egiptok (91,5) harreman guztiak eten dituzte Qatarrekin (2,4 milioi), hegaldiak, sal-erosketak, turismoa, bisitak, harreman politiko eta militarrik... eta *Al Jazeera* telebistaren presentzia.

Une larriak Golkoko potentzia txiki txit aberats honentzako. Ikusi zifrak. 2,4 milioi biztanletatik –emakumeak soilik laurdena– %90 atzerritar langileak, herritartasuna ez dauka 300.000k besterik. Lurralde Nafarroa adinakoa. Alderdi politikoak debekatuta. Munduko hirugarren gas erreserba handiena, Errusia eta Iranen ondotik.

1995ean Qatar Saudi Arabiaren menpetik askatu zenetik, tirabiran egon dira

bietako dinastia agintariak. 2014an bizi izan zuten aurreko krisia, orduan ere Saudi Arabiak eta bere sateliteek Qatarretik enbaxadoreak erretiratuta. Oraingoan gogorrago tenkatu du soka Saudi Arabiak, blokeo totala ezarriz Qatarri. Bitartekaritza lanak konplikatuak dira, eta bi aldeek daukate zailago atzera egitea: Qatarrek burua makurtuz gero bere izaera bera galduko luke; Saudi Arabiak Yemenen hanka sartu ostean ezin du onartu beste senide bakar batek ez obeditzerik, herrialde musulmanen lidergoa dauka jokoan.

Idatzi du Anthony Samranik: “Riad mehatxatuta sentitzen da. Alde batetik Iran indartzen ari da Ekialde Hurbilean. Bestetik, ugaritu dira orain arteko ordena zalantzan jartzen duten mugimendu lotsagabeak, laikoak bezala islamistak. Riad da gaur egun kontra-iraultza anti-iraniarren, anti-islamistaren eta antidemokratikoaren aitzindaria. Saudi familiak azken iltzea josi nahi dio ‘udaberri arabiarren’ zerraldoari”.

Iran makurtzea da gako nagusietako bat. Energia atomikoaz AEBekin lortutako akordioa gora behera, eskualdean duten hegemonia sendotzen jarraitzen dute iraniarrek, kontrolatuz Irak, Siria, Yemen eta Libanoko gobernuak –Beirutetik hala ikusten da potentzia xiitaren indarra–. Saudi Arabiarentzako bezala Israelentzako Iran da etsai nagusia, Ekialde Hurbil osoaren egonkortasunaren mehatxua. Donald Trumpek alde betara utzi ditu Obamaren epelkeriak



eta bat egin du ikuspegi horrekin. Egoera horretan Qatarrek eutsiko dio?

Egunkari berean Emile Sueurrek sinatu du krisiaren galtzaile probableena iradokitzen duen editoriala: “Qatar funambulista balantzaka hasi da”.

## Trumoi bat ekaitz bihur litekeena

Hamad al-Thani emirra egin delarik Qatarreko erregetzaren jabe –Sueurren analisisian– 1995ean, orduan nabaritu ziren urte batzuk lehenago eskualdea astindu zuten Basamortuko Ekaitzaren –Irakek Kuwait inbaditu osteko gerra-eraginak. Iranen anbizioak batetik eta Saudi Arabiarenak bestetik, Qatarreko emirrak ulertu zuten tronuari eusteko, emirerria bizirik atxikitzeko, leku bat eman behar ziola munduko mapan.

Qatarrek ez dauka horretarako ez indar militarrik, ez behar adina biztanle, ez kokapen geografikorik. Baina oso aberatsa da. Gas-dolarrak inbertituko ditu diplomaziaren osagai orotan (kultura, kirola, hedabideak, politika, ekonomia) Riad handiaren itzalari eskapo egiteko.

*Al Jazeera* izan da ofentsiba orokorraren tresna nagusietako bat: iraultza eskualdeko hedabideen panoraman, Ekialde Hurbil osoan eragin ahalmena ematen duena, audientzia harrigarriekin, beste agintariak haserraraziz.

Diplomazia ekonomiko lantzeko, gasaren etekinekin funts handi bat sortuko du Qatarrek, krisiarekin diru gosez diren Alemania, Estatu Batu, Frantzia



*'InContext' webgunetik hartutako irudian, AEBetako lehendakari Donald Trump eta Saudi Arabiako errege Salman Abdulaziz erregea (ezkerretik bigarrena) 'Ezpata-dantza' jokatzeko Riadera amerikarrak egindako azken bidaian. Ekialde Hurbileko karta geopolitikoa berregiteko nahian, Obamaren baretze estrategia eten eta Iran gogorrago erasotzeko deia egin zuen Trumppek. Qatar izan daiteke mugimenduaren lehen biktima.*

edo Erresuma Batuko konpainietan eta zor publikoetan inbertitzeko. Kirolean ere nahi du distira Qatarrek, aipatu beharrik ez Barcelona FC bezalakoetan egindako inbertsioak, munduko futbol txapelketa 2022rako... Hezkuntza eta kulturak, hitzarmenak AEBetako eta Europako unibertsitate onenekin.

Benetako fronte diplomatikoan, geopolitikan daukan txikieria gainditzeko ekilibristarena egingo du. Israelekin hasieran harreman guztiak eten, gero saiatu Gazan agintzen duen Hamasekiko bitartekaritza egiten... aldi berean Hamaseko buru nagusia Dohan aterpe-tuz. Berdintsu AEBekin, Ekialde Hurbileko egoitza militar nagusia eman al-Udeid basean Siria eta Iraken Estatu Islamiarraren kontrako erasoak bertatik egin ditzan, eta aldi berean talibanen bulego ofizial bat baimendu

Dohan. Bestalde, Al Qaeda eta Estatu Islamiarrari Qatarrek emandako laguntzaz asko idatzi da, baina honetan ere ez du oso ezberdin jokatu bere anaia nagusi saudiarengandik. Geopolitikak klase guztietako joko kontraesankorak baimentzen ditu.

Baina Iranekiko harremanak ere kudeatu behar ditu, eta honetan oso aparte dago Riadeko buruen interesetatik. Iranek eta Qatarrek konpartitzen dituzte Persiar Golkoko urpean dautzan gas hobi erraldoiak, munduko handienak. Ezin zuen parte hartu, beraz, Irak isolatzeko kanpaina arabiarrean.

Qatarren ekilibrista-diplomaziak bere bidea txukun egin zuen, harik eta 2013an Egipton militarren kolpe batek azpiratu zuen arte Mohammad Morsi, qatartarrek babesten zutena. Golkoko herrialdeen arteko krisi di-

plomatikoa ere garaitsu horretakoa da, 2014koa.

Eta gauzak baretuta ziruditenean, aurten bertan iritsi da Donald Trumpen bisita Riadera, Iranen kontrako mintzal-di bortitza eta Obamaren aroa finikitutuz Saudi Arabiaren eta AEBen arteko harremanen berotzea.

"Riad eta bere aliatuek –amaitzen da editoriala– ez dute denborarik galdu zauria urratu eta lotsagabeegi jokatu duen Qatar berriro arrastoan sartu nahi izateko. Gaur, Mendebaldeko agintarien isiltasun handiaren aurrean eta Saudi Arabiak eskualdeko kartak berriro bere nahieran banatzea erabaki duenean, Qatar funbuluok lan handiak eduki behar ditu alanbrearen gainean irauteko. Hortik aurrera, baliteke trumoi diplomatiko honek iragartzea Ekialde Hurbileko ekaitz berriren baten hasiera". ■



# ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

## 50 urtez elkarrekin